

Añorga

Intxaurrondo

«Txikitan pandero-jostailu batekin ibiltzen nintzen»



Familiatik datorkio musika zaletasuna Amaia Arza 17 urteko añorgatarrari. Zortzi urterekin hasi zen panderoa jotzen eta, geroztik, 13 txapelketa irabazi ditu.

Gari Otamendi

Noiztik jotzen duzu panderoa eta nondik datorkizu zaletasuna?

Batez ere, familiatik datorkit, hainbat lehengusu musikari ditut-eta: soinu handia, trikitixa eta pianoa jotzen dute, besteak beste. Panderoaz dudan lehen oroitzapena txikitakoa da: pandero-jostailu batekin ari-

tzen nintzen. Zortzi urterekin, gustatzen zitzaidala eta ondo egiten nuela ikusita, gurasoek Solano musika eskolara —orduan Martin zena— eraman ninduten. Geroztik, bertan nabil eta Cristina Solano dut irakasle.

Txapelketetan ere aritzen zara eta emaitza onak lortu dituzu.

Adinaren arabera, bi maila daude. Iazko azaroan Leire Zumeta anoetarrak eta biok Euskal Herriko Txapelketa irabazi genuen hamesei urtetik beherrakoentzako mailan —aurten bete ditut hamazazpi urte—, eta, gainera, 16 urte besterik ez izan arren, helduenean, hirugarren izan ginen.

Erromerietan zer moduz moldatzen zara?

Hamabi urte ingururekin hasi ginen afarietan, jaietan eta antzekoetan jotzen. Normalean eskolara deitzen dute eta Cristina Solanorekin hitz egiten dute. Dezente aritzen gara: sagardotegi batzuetatik deitu izan gaituzte afariak alaitzeko, Aiako San Pedron makina bat aldiz izan gara... datorren igandean, hilak 14, izango gara hurrena.

Hemendik aurrera zein asmo duzue?

Orain arte bezala jarraituko dugu, beta dugun bitartean. Batxilergoko lehenengo maila ikasteaz eta panderoa jotzeaz gain, dantzan eta saskibaloian ere aritzen naiz. Denborarekin ikusiko dugu. Panderoa lanbidetzat hartzea? Auskalo, baina ez dut uste.

Emakumearen astea amaitzear

Astelehenean, hilak 1, hasi zen Emakumearen Astea Intxaurrondon eta hilaren 8an bukatuko da. Auzoko emakumeek antolatuta, hainbat ekitaldi izango dira asteburuan.

Ostiralean, hilak 5, Lorena Izagirre eta Carmen Trecu psikologoek "Egungo emakumea: konkista eta erruaren artean" hitzaldia eskainiko dute.

18:00etan, Intxaurrondo Berri kultur etxean.

Larunbatean, 19:30ean, Santu Guztien Elizan, Aita Donostia abesbatza ariko da.

Azkenik, hilaren 8ra arte, auzoko emakumeek egindako lanak —koadroak, gakorratz-lanak eta jostun-lanak, besteak beste— ikusgai izango dira Intxaurrondo Berri kultur etxean, ostiralean eta astelehenean, 17:00etatik 20:00etara eta larunbatean, 11:00etatik 13:30era.



Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza